

aurreko orrialdetik dator

faltan dago arazoa. Haur gorra hezkuntza prozesutik baztertua sentitzen da, ez dauka profesionalen laguntzarik. Haur hori ikasgeletan egongo da, baina inondik inora ezingo dio jarraitu gainontzekoen heziketa prozesuari». Bere hitzetan, egokitutako zentroak lortzea oraindik urrun dago. Hala ere, lehenengo pausoak ematen ari dira. «Badaude zentro bereziak gorrentzat, eskola bereziak, baina ez da helburua entzumen arazoak dituzten gehienentzat». Itsuen kasuan egoera guztiz bestelakoa da, eta, Txemak azaltzen duenez, «baliabide ugari dituzte eskura, bananduta, baina eskoletan laguntzak jasotzen dituzte».

Txemak arazoak dituzten hurrei lagundu beharra azpimarratu du. «Laguntza eskaintzen duten profesionalak behar bereziak dituzten haurrentzat dituzten baliabideak ez dira nahikoak, betiere profesionalen iritzian. Ni ere ohartzen naiz, baina profesionalak beraiek dira laguntza gehiagoren beharra azpimarratzen dutena».

Elkarbizitzen ikasten

Laguntzaren beharrean dauden beste batzuk adimen urritasuna duten haurrak dira. Garai batean haur horiek eskola berezietara joaten ziren, baina, Ohiana Diaz de Mendibil Atzegi adimen urriko pertsonen alde lan egiten duen familiartekoen Gipuzkoako elkarteko kideak azaldu duenez, 80eko hamarkadan egindako legeen ondorioz haur horien hezkuntza eskola publikoek dute. «Momentu honetan ez dago eskola berezirik, ez dira existitzen, Gipuzkoan ez behintzat, eta haurrak jada zuzenean joaten dira eskola normaletara, bai publiko bai pribatuetara, txiki-txikitatik», azaldu du. Modu honetara esan daiteke adimen urritasuna duten haurrek gainontzeko haurrek dituzten aukera berak dituztela. «Adimen urriko pertsona nahi duen eskolara joan daiteke. Baina hor nahiko polemika dago; izan ere, legediak beti hitz egiten du eskola publikoari buruz, eta horiei ematen die estaldura osoa. Pribatuan gerta daiteke kasu batzuetan dirurik ez egotea, eta beharbada eskasagoa izatea», azaldu du.

Esan bezala, garai batean adimen urritasuna zuten haurrak eskola berezietara joaten ziren, baina orain gainerako haurrekin aritzen dira. Haurarentzat hobea zer den galdetzean, Ohianak azpimarratu du beraiek beti egin dutela integrazioaren alde. «Adimen urritasuna duen pertsonak gizartean beste edozein pertsonak bezala parte hartuz lan egiten dugu Atzeagin», azaltzen du. Gaineratu du seme-alabak eskola berezietan eduki dituztenek hori defendatzen dutela, bertan askoz babestuagoak zeudelako, eta beharbada ez zituztelako «nolabaiteko begiradak» pairatzen. «Baina guk uste dugu oso ona dela, ez bakarrik haurarentzat, baita beste pertsonentzat ere. Adimen urritasuna duen haur batekin bizi diren haurrek —hori oso aberasgarria da— etorkizunean per-

tsona horiek dituzten zailtasunak baloratuko dituzte; horrela ez dute beldurrik izango beraiekin harremanetan hasteko», azaldu du.

Era berean azpimarratu behar da adimen urritasuna duten haurrek gainontzeko haurrekin eskolaratzen baldin badira ere beraien beharrezanean erantzuteko laguntza bereziak behar izaten dituztela. «Konturatu behar gara pertsona hauek badituztela behar gehiago, eduki berberei heltzeko», argitu du Oihanak. Hori dela eta, badago Berritze Gune deritzon aholkularitza talde bat, psikologo, pedagogo eta hainbat profesionalen osatua. Talde horrek haur horien diagnosia egiten du, eta aztertzen du zer zailtasun dituen, eta zer potentzial dituzten, hori lantzen saiatzeko. Horrela, beren beharrei aurre egiten dizkieten laguntzak ematen zaizkie.

Ez da ahaztu behar adimen urritasuna duten haurren artean ere hainbat maila daudela eta batzuek edukiak berneratzeko gaitasun gehiago dutela eta beste batzuek gutxiago. Horrela,

bakoitzak dituen beharren arabera jasoko ditu laguntzak. «Badaude gela iraunkorrak adimen urritasuna duten pertsonen bakarrik osatzen dituztenak, eta gela horien ardura Gautenak dauka», azaldu du Oihanak.

Haur hauek ohiko haurrek jarraitzen duten prozesu berdina jarraituko dute. Horrela, haur hezkuntzan 0-6 urte arte egon daitezke, eta bertan urtebete errepikatzeko aukera dute. Lehen hezkuntzan, berriz, 6 eta 12 urte bitartean egon ahal izango dira, eta bi urte errepikatzeko aukera izango dute, aurrez haur hezkuntzan ez badute errepikatu. Hala izanez gero, hemen urtebete bakarrik errepikatuko dute. Oihanak azaldu duenez, 16tik 20ra egon dezakete bigarren hezkuntza ikasten, baina normalean ikasteko gela batzuk daude eta horietan ematen dute izena. «Gela bereziak dira, eta giza baliabideak erakusten zaizkie, dirua erabiltzen, gero praktikak egiten dituzte Gureak-en. Oro har, pixka bat prestatzen dira bizitzan autonomia izateko», azaldu du.

Garraio publikoak egokitzen ari dira. • ONINTZA ENBEITA



Beg

«P

Begoña...
urte ditu...
aulki bat...
asko dak...
tuzten za...
berri.

Non ikas

Baraka...
ikasten d...
zian ikas...
gainontz...
arrunt ba...
hazten d...
ikusten m...
tsoa jarra...
tarteaz, z...
tzeko ha...



Egun adimen urritasuna duten haurrak gainontzeko haurrekin batera joaten dira eskolara, modu honetara integrazioa bultzatzeko asmoarekin. • BOB EDME